

|||UZTAILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...|||



Badatorrela... abesti eta guzti!

KILOMETROAK. Saninaziyotan eta oporretan pentsatzen dugun bitartean, ziur Ikasberri Ikastolakoak Kilometroarako falta diren egunak zenbatzen dabiltzala. Ekitaldi pila egin dute azken hilabeteetan, baina gehien itxaroten den unea udarekin batera etorri zaigu. Kilometroen abestiaren aurkezpena. Ze esatek! talde azpeitiarrak eta azpeitiar askoren kolaborazioarekin. Klik bat eginda aurrera goaz...




|||alex silva|||



A zer... animalikeria.

ARTEA. Oreina metroan, ostruka lantegian... Mikel Uribeberria urrestildarraren artea ulertzeko modua da. Donostiako KUR galerian ikusgai izan da bere obra eta originaltasuna eta irudimena ez zaizkio falta. Gure herriko parajeren bat ere ikus zitekeen errinozeronte batekin.



Sanagustin Kulturgune osatua zabalik!

KULTURA. Urteetan azpeitiarren amets izan diren kultur proiektuak zabaldu dira azken hilabeteetan. Kultur espresiorako aretoak falta ziren herrian eta orain, Soreasu eta Sanagustin zabaldu dira. Hori bai, oso kudeaketa desberdinekin proiektu bakoitza. Santiotarako Kultur Ma-

haiak kudeatzen duen Sanagustin zabaldu da. Abenduan inauguratu bazen ere, herri mugimendutik sortu den indarrak kudeatuko du kulturgunea aurrerantzean eta egindako apustuen artean, bertan zerbitzu integrala eskaintzeko taberna jarri dute. Ea urte askotarako den!.